



## DEKRETUA

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera,

### IKUSIRIK

Lanbide Hastapenean 2021/22 ikasturterako kontratazioak egin ziren 2021eko irailaren 1etik aurrera. Ilepainketako 2. mailako ikastarorako kontratatu zen Nerea Martiarena Iraolak lanpostua utzi zuen irailaren 6an beste eskeintza bat izan zuelako.

Ondoren, Hezkuntzatik zerrendarik lortu ez denez, Lanbide bidez eskeintza bat egin da eta epean izandako hautagaiei frogak egin ondoren hurrengo puntuazioak lortu dituzte:

	FROGAK		MERITUAK		GUZTIRA
	PRAKTIKOA	ELKARRIZKETA	FORMAKUNTZ A	LAN ESPER.	
GOIKIRIA CERRATO	16	20	7,4	20	63,40
IRATXE ALKORTA	19,50	12	10	--	41,50
AMAIA CORTES	15	10,5	4,7	8,8	39,00
LEIRE VARONA	12,50	8	6,75	2,4	29,65

Epaimahaiak froga guztiak egin ondoren lehenengoa gelditu den GOIKIRIA CERRATO DEL CAMPO kontratatzea proposatu du.

Halaber, puntuazioaren hurrenkera kontutan hartuz lan-poltsa osatuko da.

Gai honi buruz Pertsonal eta Kontratazio Teknikariak egindako txostena.

### KONTUTAN HARTURIK

Hori horrela, kontutan harturik postu hauek ikasturtez ikasturte errepikatzen diren kontratuak direla eta ikastaroen jarraipena eskuordetza, dirulaguntza eta ikasleen izen-emateen menpe egon arren, Idazkari honek ohartarazten duela kontratazio tenporal hauek erregularizatu egin behar direla, Gaur egun Usurbilgo udaleko Lanpostuen Zerrendan agertzen dira lanpostuak erregularizatzeko lehen pauso bezala, aipaturiko araudia bete ahal izateko. Zentzu horretan, kontratazio hauei buruzko txostena osatu duela.

Guzti hau kontutan harturik,

### ERABAKI DUT:

**LEHENENGO:** 2021-22 ikasturterako Lanbide Heziketako 2. mailako ile-apaintzaile irakasle bezala GOIKIRIA CERRATO DEL CAMPO kontratatzea, lortutako puntuazioaren arabera

**BIGARRENKO:** Kontratua 2021eko azaroaren 10etik 2022eko apirilaren 30era Udal Hitzarmeneko 10. mailaren, astean 25 orduz.



Usturbilgo Udala

**HIRUGARRENGO:** Deialdiko onarrietan jasotzen den moduan, froga guztiak gainditu eta izendatuak izan ez diren izangai hauek honako hurrenkeraren arabera lan poltsa osatuko dute:

- 1.- Iratxe Alkorta Astiazaran
- 2.- Amaia Cortes Etxabe
- 3.- Leire Varona Piedra

**LAUGARRENGO:** Akordio honen berri interesatuari ematea Web orrian argitaratuz.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

### ERREKURTSOAK

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Alkatezaren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

- Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu ordez, edo berraztertzeko errekurtsoren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

**Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena alkateak, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua.**

**ALKATEA**  
**Agurtzane Solaberrieta Mesa**

Nire aurrean  
**IDAZKARIA**  
**Garazi Etxeberria San Miguel**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU57c7f06a-029e-4ae6-9521-5089928c9d10**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021ID060086-ID06\_Dekretua/ID06\_Dekretua (CERRATO DEL CAMPO GOIKIRIA)